

**BIZKAITARRAI
BIZKAIERAZ
98n. ZENBAKIA
BAGILLA
(Ekainilla)
1986**



**ANTXIÑAKO
ANDRA MARIA
(Orduña'n)**

Gure alegiña Bizkaiarentzat da.

Gaur, beti lez, gure erriaren billaketa-lanari laguntzeko gagoz.

Gaur, aurrera joteko sasoian, itxaropena oztopoen gaiñetik jarrita,
otseintza ta laguntzarako gure gogorik onena,
barriro ta geiagotuz sortzen da.

Gaur, eta egunero, Bizkaiaren izena omentsu eta,
batez be, emoneko berba lez daroan
Aurrezki Kutxaren lana, indarra ta amesak, ez dabe utsik egingo.

Berari erantzuten jarraituko dogu.



TXURRUKA'ri oroitarria Areetan.
Itxasoaren oldarra gelditzen,
gizonaren neurribako
alegiña:

BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA

Bizkaiko Foru Diputazioak sortu eta bultzatutako Erakundea.

SENDIA

SENDI-ARDUREA

Bakoitxaren nortasunagaz egiñak gara, ez dagoz gizaki bi oso bardiñak diranik, gutariko bat be ez da beste baten bardiña.

Alan be, iñor ezin leiteke bakarrik bizi: Jaioten danean ezin da bakarrik janaritu, jantzi edo ezi. Augaitik, sendi-barruan jaioak gara, aita ta ama eta neba-arrebak gure aztean lagun doguzala.

* * *

Beste alde batetik, sendiak eurak be ezin dira osoro ornidu banaka eta olan sortzen dira sendi zabalagoak, erriak, eskualdeak eta laterriak laguntza emoten dautsela. Laguntza orreitatik sortzen dira, ura, argia, bideak eta antzeko lagungarriak.

Sendia bakoitxaren laguntzarako da, baiña beti danaren oiñarria ta lenena bakoitxa dala, gero datoz erriak, eskualdeak, aberriak eta laterriak.

Lentasun-arau oneik apurtzen diranean, larrialdiak eta ondoezak sortzen dira. Esaterako gurasoak ondo jokatzen ez ba'dabe eta seme-alaben nortasuna bear dan neurrian onartzen ez ba'dabe, euren adiñari dagokionez edo laterri batek errien nortasuna kontuan artzen ez dauanean edo aberriaren izaera bereziak kontuan artzen ez diranean.

* * *

Gure egunetan ardurazko begiraldi arin bat laterrietara egiten ba dogu, sendien aukeramenak gitxiagotuta agertzen dira eta orrelan bakoitxaren askatasuna arriskuan ipinten da, irakaskuntzan esaterako.

Sendiaren elburuak zeatz aztertuta agertzea edo aurkeztea ez da gauza erreza, sendi bakoitxaren erakundea Egi-llaren eskuetan be ba-dago-ta.

Sendi batzuk ondorengo bat edo bi baiño ez daukez, beste batzuk ostera ugariak dira. Arazo au batzutan izadi-egilleangandik dator eta beste batzutan gurasoen aukeramen-eskubidetik.

Erantzukizun ori gizakien eskuetan bakarrik aundiegia litzake, biziaren iturria ta jabe osoa Jaungikoa dalako...

* * *

Sendi-barruko artu-emonak oso sakonak eta sendoak dira, ortik dator sendi-barruko maitasuna edo maitasunik-eza, baita sendiaren arduragarri ta garrantzizko izatea be.

Baiña kanpotik erabagiak artu ta gurasoai ezartea, ezibide guztiak kanpotik ezartea, oiñarriko arau argi batzuk izan ezik, neketsu ta gogaikarri biurtu leiteke sendietako arduradunentzat, banakako bakoitxaren jokabidean jazoten dan antzera.

* * *

Eleiz-giroan eta gurasoai euren ardura ori beteteko, sakramentua eskintzen da, eta orrelan gurasoak almenak orniduta geratzen dira indar berezi bat eurai emonaz. Orrelan seme-alabak euren eldutasunera bidea egin dagien eta oneik bear dan lez tresnatuta eldu daitezcan euren egin-bear eta gizarteko arduretara, adin eldura. Eziketa arduratu au altxorrik ederrena izango da garaia datorrenerako.

Ba-dira seme-alaben garai ori alperrik galtzen daben gurasoak, umeai euren naikeri guztiak egiten eta maite-griña guztiak beteten izten dautselako, baiña bere sasoian artu bear dabezan ardurak eta erantzukizuna artzen lagundu barik.

* * *

Ez ete litzake eziketarik egokiena seme-alabakaz al danik geien alkar-izketea ta sendi-bizitza indartzea, eurakaz al danik geien egotea? Jolasean, otoiizean eta lan batzutan sende guztiak batera ibiltea bear ba'da.

EGILUZE'k



GURE ESKOLETAN

BATZORDEA

Atariko idaz-lan au idazten diardugun artean Eskoletako Batzordeak sortzen diardue erri-aurreko ikastegietan. Lege barri bat agertu da orretarako eta lege orren bideetatik jarraituz, gure eskoletarako jokabide barri bat gertatu nai da.

Orretarako be auteskundea egin bear, izan be demokrazi-giro onetan, ekintzak irudi ona izan dagian, auteskundea egin bear da.

KONDAIRA LARRIA

Euskalerriko eskolak izan daben kondaira, erriak izan dauanaren izpillua dira, eta ez izpillua bakarrik, iturria be bai. Eskolak garrantzi aundia dauke errien gogoa sortzean eta indartzean.

Aldi baten, irakasle edo maisuak bertokoak izanda be, kanpoko jakintza emoten ebelako, geroago, lege zarrak galdu ziran ezker, II Isabel Erregiñeak kanpoko maisuak ona ekarri eta emengoak kanpora joateko legea emon ebalako eta beti gure jakintza atzerritarrena izan daiten alegiñak egin, beti izan da larri Euskalerriko eskola-giroa.

ESKOLAK EUSKALDUNDU

Bizi gura dauan erria iltea ain erreza ez dalako, eskola-inguruan egoan zapalkuntza ori ikusita, ikastolen giroa sortu zan eta orain be irauten dau, giro pozgarria benetan.

Baiña Euskalerriko umerik geienak iraindiño be eskolara joaten dira. Bearrezko gauzea da eskolak euskalduntzea. Azkenengo urteetan alegin aundia egiten da orretan, D, B eta A ereduak bide dirala. Ez dakit beranduegikoa

dan alegin ori edo naikoa dan, telebiziñoaren, irratien eta olakoen indarrak bere neurrira ekarri eta gure izkuntzari emon bear jakon indarra emoteko. Erdera larregi entzuten da gure gaztetxoaren artean...

BATZORDEA

Dana dala, or daukagu lege bat eta lege orretatik datorren Eskola-Batzordea sortzeko era bat.

Batzorde ori, jakiña, ez da sortzen gure arazoai erantzuteko, baiña beti lez, legeak diran lez artuta ekin bear dogu, al dan neurrian, ura gure errotara etorri daiten, ez-lako aukerarik galdu barik.

Batzorde orretan gurasoak izango dabe indarririk aundiena, urrengo irakasleak. Irakasleak euskaldunak izan daitezcan egin da alegiña, baiña orain gurasoak euren zeregiña bete dagien alegindu bear gara. Guraso euskaldunak or arduratzen ez ba'dira, euskaldun ez diranak edo euskeraren arerio diranak sartu leitekez eta arrisku aundia litzake ori.

Gero ikasleak eurak eta eskolako langilleak be beragoko mailla baten kideko edo barruko dirala, guztien artean aukeratuko dabe Zuzendaria.

GARRANTZIA

Ikuspegi askotatik dauko garrantzia Batzorde onek: Irakasle-aldetik, erlejiño-girotik, araubideko jokabidetik, ekonomi-arlotik... baiña euskal-girotik be bai.

Euskaldunak eta euskal-zaleak zeregin aundia daukagu or, eta lenengo autagai lez geure buruak eskiñi, urrengo aukeratuak izateko alegindu eta ori onartu, eta gero egin bear dan lanari ondo erantzun.

OMENEZ

DIMA'KO EUSKALDUN JATORRA



DIMA'TIK MAÑARI'RA

Uriarte ta Iza'tar Josu Bizkai'ko erritxu baten jaioa da, Dima'n. Ba-dago erri onetan giza-talde zintzoa, berba gixikoa baiña bear egiten zalea.

Bera gaztaroan erriz aldatu zan eta Dima'tik Bustintza'tar Ebaristo (Kirikiño) ren errira, Mañari'ra etorri zan.

Dima'n ala Mañari'n egiten ete da obeto euskeraz?

Ba-dakigu Mañari'koa dala "Abarrak" liburaren idazlea eta liburu au andra eta gizon erritarrak irakurteko egozia dala, ulertzen asi eta gero geiago sakontzeko.

JOSU, EUSKALDUNA

Idaz-lan au izenpetzen dauana ez da gauza itaun orreri erantzuteko eta erri batean naiz bestean egiten dan euskeraz aztertzeko, gaiñera esandako erritxueta bizi be ez da idazle au.

Dana dala azterketa orren ondorena, auxe bai ba-dala egia: Uriarte'tar Josu'k ederto egiten ebala euskeraz, euskereak berez urtetan eutsola auzoko lagunakaz eta ezagunakaz alkar-berbetean (Lenaldian darabilt aditza. Ez dot esan oraindiño, baiña gure Josu il egin da eta ez dau bear-ko izkuntzarik orain ango biztanleakaz berba egiteko).

NOR ZAN

Bere soldaduzka non eta zelan egin eban, ez dakit, zertzelada ori ez eustan emon.

Adin egokian Zornotza-Euba'ko andra bategaz ezkondu eta iru seme-alaba izan ebazan, neska bat eta mutil bi.

Oraintsura arte iparramerikatarren kimika-baltzu baten egiten eban lan, baiña baltzu ori larrione batera eldu zan eta ateak itxi bear langilleai, onein artean gure Josu'ri be bai.

Josu'k sendotasunaz eta adoreaz artu eban ezbear ori, orretarako bere fedea indar-emoille ebala. Ez eban jokabide gorretara jo.

LANBIDE BARRIA

Josu'k, lanbide ori galdu ebanean, beste era batera lan egiteko bideak aurkitu ebazan, alperkerira eta fristi-frasta ibiltera jausi barik: Etxeko abereen ardurea artu eban, auntzena, zeregin onetan trebea zalako eta jakintsua bere gaztarotik.

Egoera barri onek astia ugari emon eutsan ortuko lanak egiteko eta baserritarren eginbearrai laguntzak mendian naiz soloan emoteko, eta orrelan bizibidea aurrera eroan al izan eban.

GAISO-ALDIA

Josu'ren biotza, baiña, ez ebillen ondo gizon sendokotea izan eta ikuspen baten osasuntsu-antza emon arren.

Joan dan jorraillaren azkenengo egunetan eguerdiko ordu bat inguruan saldea artzen egoala, subetean bertan jausi zan lurrera biotz-miñak eraginda eta beingoan il zan bere andrearen aurre-aurrean.

Biamonean izan zan illetea. Lauaxeta Ikastolearen ingurua berebillez beterik ikusi neban arrastegi aretan eta zer zan itaundu nebanean Zubiondoan bizi izan dan Josu'ren illetea zala esan eusten.

Illetara urreratu nintzan eta ate-ondoan egoan orrian izenpetu ondoren, barrura satu nintzan, eleizatxura.

Pasiotarrak eleizkizun ederra egin eben: Mezea, berbaldia, abestiak... azkenengo oneik ondo aukeratuak eta biotzari ikara emoteko lakoak. Eleizatxua erritarrez bete-beterik egoan. Ain ona begikoa ta laguntzaillea zan izan be Uriarte ta Iza'tar Josu!

Azkenean Elordi'tar Luis Aitak bertsolarien doiñuz abestu eban kristiñau olerki ederra.

LETONA'K

EMAKUMEAK ALKARTASUN BARRIAN (1)

KEREXETA

Leen, ZER aldizkari onetako zenbaki batzuetan, Jesu-kristo'ren Alkartasun Barrian agertzen diran **Abereak** (79,15; 80,16; 81, 13 eta 82,7), **Narraztiak** (82,7), **Ostearantzeko abereak** (82,8), **Egaztiak** (83,14 ta 84,14), **Abeeren gorputz-atalak** (84,14), eta **Zugatzak** eta **Landarak** (85,4 ta 86,14) azaldu genduzan. Ikusi daiguzan orain an agertzen diran **Emakumeak**.

(Lei = Leizarraga, 1571; Duv = Duvoisin, 1865; Ol = Olabide, 1958; E-B = Euskal-Biblia, 1976)

Ana (Lk 2, 36)

Había también una profetisa, Ana,

Lei: Bacén prophetessabat-ere Anna,

Duv: Eta bazen profetesa bat, Ana,

Ol: Emakume igarle bat ere ba-zan, Ana,

E-B: Emakume profeta bat be ba-zan: Ana,

Berenize (Agripa'ren arrebea) (Ap. Eg 25, 23)

Al día siguiente vinieron Agripa y Berenice con gran ostentación...

Lei: Bada biharamunean ethorri ciradenean Agrippa eta Berenice pompa handiarequin,

Duv: Biharamunean beraz, Agripa ta Berenize faza handitan ethorri, eta...

Ol: Izan ere, biaramunean, Agripa ta Berenike arrandiro etorri ziran;

E-B: Biaramonean, Agripa ta Berenize ospez beterik etorri ziran;

Drusila (Erodes Agripa'ren alaba gaztea) (Ap. Eg 24, 24)

Vino Félix con su esposa Drusila, que era judía;

Lei: Felixec ethorririk Drusilla bere emaztearequin, cein baitzén Iudaca,

Duv: Feliz ethorri zen bere emazte Drusilarequin, zeina Judua baitzen;

Ol: Felix bere emazte Durusil yuduarekin etorri zan,

E-B: Felix bere emazte Drusila judarragaz (Zesarea'ra) etorri zan;

Ebodia (Filipos'ko kristau emakumea) (Flp 4, 2)

Ruego a Evodia y a Sintique, tengan un mismo sentir en el Señor.

Lei: Evodiari othoizten nagoca, eta Synticheri othoitez nagoca diraden affectione ber-batetaco Iaunean.

Duv: Othoizten dut Ebodia eta errekeitzen Sintika, gogo ber batean egon ditezen Jaunaren baithan.

Ol: Ebodi ta Sintike'ri aolku dagiet Yaunarengan gogo batez egoteko.

E-B: Ebodi'ri ta Sintike'ri Jaunagan gogo batez egon daitezala eskatzen dautset.

Eunize (Timoteo'ren ama) Tim 2.^a, 1, 5)

... esa fe que habitó primero en tu abuela Loida y en tu madre Eunice,

Lei: ... fedeaz, zein lehenic habitatu ican baita hie amasso Loida baithan, eta hire ama Eunice baithan...

Duv: ... fede zina, lehenik Loide zure amasoren eta Unize zure amaren baithan izan dena,

Ol: Sinismen ori lenik zure amaso Loide'gan ta zure ama Eunike'gan bizi zan;

E-B: Sinismen ori leenen Loide zure amamagan eta Eunize zure amagan bizi izan zan;

ONDONAIA. GOIRIA

Gizon guztiak daukez euren alde onak. Guztiak gauza onak. Ontasuna batzuenak bakarrik ez da. Jainkoak gizona berenez ona egin eban. Pekatuak biurtu ta egin eban gaizto. Onbideak ondar andia dau beti be. Gizonik gaiztoenak bigunduten dauz. Orregaitik gizonik argienak goraldtu izan dabe ondonaia.

Ontasuna gauza sendoa da ta baliotsua. (Epiteto.)
Egiten dan ona egundo ez da galtzen. (Fenelon.)
Besteen zoriona gitxitu barik, bakoitzak al'dauan zorionik andiena eukitean datza gizonen zoriona. (Huxlei.)

Zuk ondonaia agertu beti zeure adiskideai euren maitasuna geiago izan dagizun, zure areioakaz beste onenbeste egin zeure adiskide egin dagizuzan. (Epiteto.)

Ondonaia zer da? Maitasuna besterik ez. (Tolstoy.)
Gorrotu dautzuenai on egin eta otoitz kalte dagitzuen alde. On dagitzunai on ba dagitzezu, zer lortzen dozu? (Jesukristo.)

Erea dagoanean arerioentzak aierkunderik ez eukitea, gizonkiro jokatzea da, baiña zoritxarrak jota dagoanean bere erruki izateak ta laguntzeak biotzeko ontasunik andiena erakusten dau. (Platon.)

Biotz zabalak bakarrik dakie ondonaiaeren anditasuna.

**GOITIA TA ARROLA'TAR IZASKUN ZURE
JAUNARTZEAREN OMENEZ**



Egun aundi bat oroitzen dogu
zure bizitz kutunean,
lur onetara begiraturik
sendiko maitasunean;
aiton amomak eta guraso
maitzeko lorartean,
usain gozoa dauka larrosak
irriparrez biotzean.

Jakitura gauz aundia da
buru sotillen argia,
zeru ta lurak maitatzen dabe
neskatxo lore garbia;
izadi dana begira dago
miretsiz zure bizia,
jakin egizu, gaur, nor zaran zu,
aingeruzko irudia.

Gaurko egite arrigarria
azaldu nai dot itzetan,
sinismen barik ez dot ulertzen
nor dagon ogi zuritan;

zeruetako lagun guztien
poza zan zorionetan,
Egille Bera etorri jatsu
maitezko besarkadetan.

Izaskun maite, oroitu zaite
zure bizitza guztian,
Egillearen erruki dana
artu dozu biotzian;
zure izate eta bizia
daukazu Aitarenian,
egite onez landu egizu
zure baratza zurian.

Egilleagaz alkartu zara,
eztegurik aundiena,
izar sorlea etorri jatsu
argituten bizi dana;
ontasunaren jakitura
da zure maite kutuna,
urrezko kateiz zaindu egizu
gaur artu dozun laztana.

AITITA BIAI

Kanu ta Martin gizon trebeak,
solo-artean jaiokak,
lengo aldian beien arduraz,
gaur, aurrez, lora zuriak;
Zuen semien izarrak dira,
ain dira eder maitiak!
euren antzeko bitxi politik
ez dabe ikusten begiak.

PAULIN

AMODIO BAKANA

Zenbat ume, basterretan, izarra negarrez;
begi uztuetan kiliz gose aramua.
Ume errukarri! Euren amets-eremua
bete-beterik daukoe larrosa igarrez.

Gosea dabilkoe itxaropenak janez,
eska bilduetan —esnerik bako kaikua—
ezer ez besterik: etsipenaren zukua,
apar mingotsduna, ertz oroetatik ganez.

Tristura azalez bildutako azurtxoak,
gosearen asez puztutako atabalak,
ttuntun da ttuntun akelarre zorabioa.

Goseari matralletan mosuka gaxoak.
Bai sendoak alkar maitatzeko egiñalak!
Nork ausiko euren arteko amodioa?

DOANA DOALA

Aldi joanaren ezea
zimeldua ba da aspaldi
—udabarri txorta usaitsu,
lillura zoroei opari—.

Ba daroat eiorik ainbat
ogiz beteko uda ori.
Udagoiengo dolaretan
ainbat maats ta ardo gorri.

Oroimenaren bidertzean
joanari dei alperreko.
Gaurko aize kantari onek
ez dau geiago abesturko.

Baña eta zeren ardura?
Txoriak eta sagardiak
abestuko. Adin barri bat
ba dakarst niri bizi naiak.

Neure esku bi batuetan
baitu daroat bizi poz au,
atson gozodun lore eder.
Beronek ni koroituko nau.

A. BIDAGUREN

**ULRIKE'RI ERANTZUNA**

Ulrike Kristo'gan maitea:

Askoz geiago jakin bearko neuke zutzaz, zure eskutizari erantzun egokia emon al izateko. Zure nortasuna billa-billatzen diarduzula diñozu. Nik ez dakidala guztiz ondo ori zer dan edo zertan dagoan autortzen dautzut zintzoro, egi-egiz iñor ez dalako ezagutzen bizitzearen azkenera arte eta norberaren eztabaida guztiakaz Jaungoikoari eskintzen gaiakozanean, berak bakarrik ezagutzen gaituoso-osoan. Bilbiak diñoanez, gure biotza egitan berak eza-gutzen dau-ta.

Zori txarreko egiten zaituen zure barruko eztabaida gogaikarriak aitatzen dozuz. Orregaitik asarre zabiltzala eta negarrez zagozala diñozu, zeu ezagutzea nai dozu eta orretarako besteen aurrean zure burua zorotzat jotzen dozu eta illunkeriak emoten dautzuz.

Zeuk esaten dozun lez, zomorro edo aurpegi-ordeko bat ipinten dozu eta onek be ez dakartzu ondoren onik. Buru-jabetza billatzen zabiltz eta senditik aldentzea eta baieztuko zaituen lagunak, ondo artuko zaituan taldea, billatzen dozu eta orrelan be goibera-aldi baten bildurrez zagoz.

Zer esan leiteke?

Antxiña gogo-egoera oneri "legorraldia" esaten jakon. Olako egoerarako arauak be antziñakoak dira, baiña ez da erreza norberaren barrutik urten eta norberaren nortasuna aldatzea eta aldatze ori alaitsu, irribarrezkoa eta goibera-aldi bakoa izatea.

Alan be, egitasmo orreik ez dira izaten lenengo ikustaldian guri agertzen jakuzan lakoak. Oba litzake egoera orreik eroapenez artzea eta geroago zentzunezko diran ala ez ikustea.

Ara zer esan eban Santiago Apostoluak bere eskutitzean: "Zuen artean iñor naigabeturik dabil? Otoitz egin dagiala" Egin dozu iñoz orretarako benetako alegiñik? Iñoz agertu dozu zure goiberaldi samiña Jaungoikoaren aurrean? Orma illun bateri berba egiten dautsazula zuk uste izan arren, Beragaz itxaropenez berbetan zagoz.

Loiola'ko Ignazio Santuak neke-miñetan, "arimearen illunean", norberaren oitura ta arauetan aldatzerik ez egiteko eskatzen eban. Burua argi eta gogo bare ta trankil euki arte, artu genduzan erabagiak bete bear doguz. Eta beste au be eskatzen dau santu onek: Goibera-aldietan iñoz baiño aletin geiago egin bear dogula, poz-aldietan artutako erabagiak beteten: "Legorraldian dagoanak eroapenez aletin egin begi eta goiberaldi orren aurka eginbi-deak imiñi ezkerro, laster poztuko dala gogoratu begi".

Naigabe orren zio batzuk be agertzen dauz Aita San Ignazio'k: Jaungoikoaren gauzetarako geure nagikeria, bata. Legorraldi ori geure zintzotasuna, kemena ta sendotasuna aztertzeke ordua izan leiteke eta une orretan ikasi bear genduke, gure aldetik makalak garala eta Jaungoikoaren laguntza ta grazia bear doguzala.

Ori orrelan izanik, gogo-bizitzearen antziñako irakasleen arauak entzuten ez ba'doguz, legorraldian mingostasuna sortuko jaku, eta burura sartu bear dogu beti dagoala bideren bat goiberaldiaren uraren aurka uger egiteko. Zertzelada orreitan otoitz egin leike, baita apur bat mundutiarrak diran bide batzuk artu be (...).

AITA RHANER'EN ESKUTITZA
(Letona'k euskeratua)

GOSIA

Gaur nere etxian ez dago ogirik aramuzarak sabelian nago ni baurik.

Jan egingo neuke zezen bat osorik eukiko baneuke zezena dubarik.

Txiruak daukoz ametsak Iñoz ezin lorturik gaur gure amak ez dauko kaixan arturik.

Osasuna euki arrian ez badago zer janik zelan demontre biziko naiz ezertxu be jan barik?

GAROA

Garo tanta dago lozor bedar gain izar dirdigarrija goi daude bere zain ze maite zaitut bedar nik ori.

Bat egiñik gagoz alkar biok pozik maite eztizko itzak alkarrerri samur esanik baiña laster alde egin biar zugandik.

Eguzki zital bero dator arin ningana urturik nire bizi eta poz dana banua ni betiko maite kutua laztana.

Ze labur ludi. Ontako bizi egokera tanta garoa legez dua laster lurrera amets danak itxita amai bako lotara.

ABOITIZ'TAR JERARDO

ZEKENKERIA

GOIRIA

ZEKENKERIA.

Zekenkeria betiko gexoa da. Gizaldi guztietakoa. Ta alde guztietakoa. Gizon zekenak beti izan dira ta alde guztietan. Askok izatean daroe zekenkeria. Zekenkeria gogo-argaltasuna ta txirotasuna da. Gaitz argala egitan. Erkiña. Ona zekenkeriari buruzko esakun batzuk.

Txirotasunak gauza askoen bearra dau. Zekenkeriak danena. (La Bruyere.)

Zekenkeria esku-zabaltasuna baiño txarragoa da ondasunak iristeko. (La Rochefoukol.)

Zekenkeriaren menpeko dana laster menperatzen da diruagaz. (Salustio.)

Zekenkeriak norberaren buruari ukatzen dautsana, ostu daroatse besteai. (Seneka.)

Ba-da itxurazko zekenkeria: itzena. (Konstanzio Virgil.)

Txirotasunak gauza askoren bearra dau; zekenkeriak danak gura dauz. (O.S. Marden.)

Geienetan zekenkeriak atzekabatuten gauz, ez txirotasunak. (X)

Beste gizonak euren ondasunen jabe dira; zekena bere ondasunen morroi ta yopu da. (Juvenal.)

Zekenkeria gaitz guztien iturri da. (Paulo doneak.)

Zekena txarriagaz bardindu bear da: biak ilda gero bakarrik dira onuragarri. (Verodossat.)

Zekenkeria zer da? Txirotasunaren bildurraren bildurrez beti txirotasunean bizitea. (Bernardo doneak.)

Zekenkeriak biotza txiki biurtzen dau. (Chatobriand.)

Zekenkeriak bere tokitik ateraten dau biotza. (Stendhal.)

Begira txori orri: aurkitzen daben guztia iruntziten dabe. Alkar joka dabiltz. Beste batzuk datoz euren aurka janaria kentzeko. Azkenez burruka gogorrean iltzen dira. Zekenen irudi dira. (Sokrates.)

Zekenak ez dau jokutzen gizonakaz il arte. (Publiano.)

Zekena ez da bere buruaren jabe. Ondasunak dira bere jabe. (Bion.)

Zekenak betiro biziko ba'ltzakez lez dagiez ondasunak: esku-zabalak ostera beingo baten ilgo ba'ltzakez lez ondatzen dabez. (Aristoteles.)

Zekenak eurenak ba'ltzakez lez gordetzen dabez ondasunak; baiña zabaltzeko bildur dira besteenak ba'ltzakez lez. (Bion.)

Zenbat aiña begiekaz ikusi, euki gura leukie zekenak. (Basilio doneak.)

EUSKALERRIAN EUSKERAZ

EUSKERAZALEAK
1986
UDAKO IKASTAROA

BIZKAIERAZ

IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

EGUNAK: ASTELENETIK EGUENARTE
GARAGARRILLAN

ORDUAK: ARRATSALDEKO 5^oetatik - 7^oetara
EDO 7^oetatik - 9^oetara

ORDAÑA: 3.000 peseta.

IZENA EMOTOKO TOKIA: EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEKI, 14 - 2
BILBO.
URRUTIZKIÑA 423.93.22

CURSILLO DE EUSKERA VIZCAINO. 3 NIVELES Y CONVERSACION

DIAS: LUNES A JUEVES - JULIO -

HORAS: 5 a 7 ó 7 a 9

PRECIO: 3.000 pesetas.

INSCRIPCIONES: EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEKI, 14-2 BILBAO.
TELEFONO 423.93.22

ARRASATE EDO MONDRAGON

LENIZ'ko erririk nagusienetarikoa eta Leniz'ko erri-burua da Arrasate. Ez ori bakarrik, Gipuzkoa-errialdeko erririk aundienetarikoa, bai bizilagunetan eta bai lankontuan be.

Bertan 1870'garren urtean 2.870 bizilagun bakarrik egozan eta orain Gure 27.000 lagun bizi dira, guda ostean asko geitu zan bizilagunetan, lanpostu ugari geitu ziralako LANBAZKUNA edo Kooperatiba sortu zan ezker.

Gorakada ori izan zan 1950'garren urtetik aurrera. Arrasate'k ez dauka lurralde aundirik eta geiena mendia edo atxak, lautarik ez da aurkitzen bertan, ta egozanak, orain eraikiaz estalduta dagoz.

Erriko lurraldeen luzera IRU LEKUA eta ERDI da, baiña dana ondo ongarria edo aprobetxatua.

Bertako arrobiak oso aberatsak dira lenagotik eta jentek ondo aprobetxaten dauz.

MEATZAK

Bertako lurrak menditsuak eta arria diranez, arri ori eratziten eben, ango FERRARIAK onduteko edo ferrarari laguntzeko.

Aintxiñetik egon dira bertan LAU FERRARI: IRU ziran GALTZAIRUA egiteko: eta izaten zan Galtzairu onenetarikoa eta beste ferraria burdiña egiteko zan, Oneizaz ganera AMABI urun-errota eta larrun lantegi batzuk be bai.

Bizi modua aurrera aterateko, Arrasateko jentea aurrenetarikoa izan da beti, bai lanean eta euren ASKATASUNA lortzeko eta jarraituteko be bai.

TOKI ONEAN

Mondragon ikusten dan bezela, toki egokian edo onean dago.

Goi-zelaira edo Mesetara joateko bertatik igaro bear da, naiz Aramaio'tik joan naiz Leniz'tik. Gasteiz aldera, zelan IBAR estu baten dagon eta itxas aldera joateko be bertatik joan bear da.

Lau alderarako bideak urtetan dabe bertatik, eta orregaitik esan geinke. Bizkai aldera eta Araba aldera joateko, derriorrean bertatik igaro bear dala.

Bildur barik esan geike, Arraste dala LAU lekutara joateko GILTZEA.

FELIPE V, 1700'garren urtean ona etorri zanean Leniz'ko ibarretik gora joan zan, ta AMALAU IDI BIKOTEKIN jaso eben Gatzagaingo aldatzean ekarri eban ARREOA.

BARBARA DEUNA GAZTELUA

ARRASTE'ren sartaldean dago menditxu bat eta bere oiñetan edo bere azpian Arrasate. Menditxu onen izena Santa Barbara da.

Bertatik menpetuten da erri guztia.

Leenagoko gudetan, erria zaintzeko bertan eraiki eben GAZTELU BAT, lenengotan gauza ederra izan zana, gero kaltegarria zan.

Ain denbora luzean egon ziran SENDIAK gudan bertan, azkenean, eskutaten ziran bertan, gaizkille guztiak, eta erria euki eben euren okerkeriakaz bildurrez beterik.

Ainbeste zinkurin edo keixu joan ziran gaztelerako erregearengana eta azkenean ENRIQUE IV'ak, agindu eban, gaztelu ori botatzeko edo deuzeteko. Erriak oso pozik ikusi eban agindu ori.

ETXEBERRI'TAR ISIDOR

AU BIOTZAREN POZA

Egaz dirudi nire gogoak
goiz epelean año arte.
Eguzkiaren zorrotz austurik
dua arin, laztan goxua
billatu nun nairik.

Gorantz, erripe ziar loretsuan
nire gogua bide zuzenian
gorputza dua nekez beterik,
baiña adimena bizkor alaiturik
!Au poza mendi' gailurrean!

Espata zorrotza gorantz luzaturik
dago Deun MIKEL Zaindari.
Izan daitela gugaz errukari
bestela izango gara danok barregarri.

Atseden, oso nekez irabazia.
Soin astunak ordain sarija
axetu gogua egarrija
au biotzaren poza.

AGUSTIN BASTERRETxea, OLERKARI (1700-1761)

Olérkariak ez ditu bizi-bear kezka ortara aizatzen, ezta euren buruak ontzeko arduratu arloak be. Beste zer-bait da olerkariak olerkari biurtzen dituna. Dei bat daroe barruan, eta dei ori dabe lera giartsu poesi lanak sort-erazteko. Erne-min dauko arimea ta barru-kezka orreri arte-sorpenez, olerki zerrendaz erantzun bear. Berezko gozagiro, gogaldi ta eskuarez jantzia dau arimea osorik, eta berez jatorkoz gero pentsamentu ederrak, biotz-ikara bizi-gozoak; onez gaiñ, beerago indar edo gaitasunak be, ots, zentzunak, ikusmenak ta entzumenak adibidez, laguntzaille bikaiñak dira zeregin orretan.

GIZASEME

Euskal lurrak be emon ditu olako gizonak eta emaku-meak, irudimen azkarrez eta biotz sentikorrez aberastuak. Orrean artekoa, ezbaia askatzera jo bear barik. Agustín Basterretxea. Lekeitio'tik bertan daukagun Izpazter'en jaio zan 1700-11-22'an. Ez dago zetan esanik, gurasoen sukalde gozoan ardura aundiko aziera izan ebanik. Leenengo eskolak bere errian eta gero Lekeitio'n osatu ondoren, Uma-umetatik barruan eroian goi-deiari erantzunez, Jesus'en Lagundian sartu zan 1716-10-25'an. 1734'an egin eban Jesuiten artean euki oi daben profesia nagusia, aurretik maixu lez Literatura, Filosofi ta Teolojia irakatsi ebazan, baita bidenabar Bizkaiko erriak zear mixiolari ibilli be. Geroago, Orduña'n eta Lekeitio'n nagusi izan zen, eta azkenez Lekeitio'ko Ikastetxeko buru zalarik, bertan il zan 1761-11-18'an.

Mixiolari lez, garai artan, bere itzaldi ta sermoiak idatzi ta buruz ikasi bear, Aita Agustín'ek be eukiko zituan idazlan-pilloak, baiña ez eban egokitasunik argitara emoteko. Nundik dira? Gaur ez doguz ezagutzen. Bai, oster, ezagutzen ditugu bertsozko lantxo oneik: 1) *Jesu-Kristo gure Jaunaren Pasiñoa* (Bilbo, 1777); 2) *Gizonaren akabuko lau gauzak* (Bilbo, 1881), eta 3) *Anima penitentearen negarrak*. Aita Agustín Kardaberatz'ek bere esku-idatzietan "olerkari bikain" deitzen dautso.

Iru liburuok egilleak bizkaieraz osatu ebazan arren, A. Kardaberatz'ek gipuzkerara biurtu euskuzan leenengoa ta bigarrena, eta izkelgi orretan ezagunagoak dira, eta olan agiri jakuz aspaldiko eleiz-libururik geienetan. Baita gero, A. Agustín'ek gipuzkeraz esotu ebazalakoan, leenengos ta bigarrena beintzat, bizkaieraz jarri ebezan. Ain zuzen, 1832'an egindako irarpen edo ediziñoak titulu au dakar: "Ysukristo geure Jaunaren Pasiño santua, Aita Basterretxea Izpazter-tarrak ta Jesuiteak Giputz-

euskerazko bertsoetan imiñi ebana. Orain urtetan dau Bizkaikoetan garbiago, leunago, neurtuago eta bizkorxeago" (Tolosa), 24 orrialde. Bigarrena be, gerotxuago, Jose A. Oar'ek ipiñi eban bizkaieraz.

Bertsotan emondako iru liburutxo oneitatik leenengoa, au da, "Jesukristo gure Jaunaren Pasiñoa" izan da, urteak joan urteak etorri, geien argitaratu dana. Aita R. Galdos eibartarrak, 1928'an, onen argitaratze barria egiterakoan, ogei bat aurreratiko jarten daukuz lerroz lerro; baiña ba-dira antza geiago be. Leenengoz Bilbo'n argitaratu zan, Uriarte jesulagunak diñozkunez, eta 1760'garren urtea baiño len. Azken urteotan, A. Galdos'ek ikerlan ederrez ornidu ta apain-apain argitara emona (Donosti, 192?), bizkaieraz eta gipuzkeraz daukazu.

Izpaztertar olerkari onegaz euskal idazleak eta argital-etxeak azturik egon diranik, ezin dogu ezelan be esan. Gogoz ar ortarako nik neure "Euskal Literatura"-n (I, 231 or.) jarri eban aipatzaillen zerrenda: "J. Urkixo, RIEV. XXII, 211 ta 150 or.; R. Galdos, S. J., "Yosukisto gure Jaunaren Nekaustea euskerazko neurtitzez", Donosti, 1928; S. Onaindia, MEOE, 246 or.; A. Irigoien, "Euskal Kantak", Bilbao, 1959, 17 or.; L. Mitxelena, HLV, 116 or.; L. Villasante, HLV, 120 or.; N. Kortazar, "Cien autores vascos", 95 or.; M. Zarate, "Bizkaiko euskal idazleak", 37 or.; Auñamendi, "Literatura, I, 225 or.; J. Vinson, "Essai Bibl. Basque", 116.

Aita Basterretxea'ren bertso-txorta oneik atsegin izan jakoz gure erriari, "Pasiñoa" deritxana batez be. Gaur-egunean oraindik Gipuzkoa'n, Bizkaia'n eta Naparroa'n sarri entzun oi dira kantu biotz-eragille onen izki doiñuak. Esan begie mañaritarak zein gogotsu abestu izan daben, bai eleizan eta bai kaleetan zear, urteetan abestu be, erriar jentek eta abesbatzak!

OLERKARI

Zabiltz eta uste bagean or dozu mendi-ertz ozkirria, loraz, zugatzez eta ur-sorburuz zoragarri. Goia urdin eta txoriak kantuz; bertatik sentitzen zara olerkari. Edo-ta, kalean bertan, alboan, lorategi bat eder, umetxo ta erri xeez inguratua, ta bertatik arrotzen jatzu barru guztia: olerkarizat jotan dozu zeure burua. Gelan gure olerkari—Lizardi, Orixe, Lauaxeta— baten poesi bat irakurri dozu ta zeu be bat-batez olerkari sentitzen zara. Luma artu ta asten zara idazten zeure arima olerkiz dardaratua pape-rean ustu nairik, baiña nai zeunkenik ezin dozu lortu, zer-

baitek uts-emen: ikasia, poesi-kultura, trebetasuna falta jatzu. Eta izate barruan daroazuna, ezin adierazo.

Olerkari ikasia denak, ostera, naiko errez jadetsi oi dau ori ta geiago be. Orrela Agustin Basterretxea'k; jakintsu zan, jakintza ta Jainko-gaiak errotik ikasi ta aztertua, urteetan eurok gazteai erakusten ibillia. Poeta berez eta ikasia. Bizkaiko erriz-erri batez be Kristoren bizitza, mirari, pasiño ta sakramentuak sarritan baiño geiago otsegiña. Eta nagusitza, itzaldi ta irakatsien artean bitarte egoki askorik ez eban arren, noizik bei olerkigintzari ekin eutson, eta or daukazuz gorago aitatu dautzudazan poesi lanok, gure euskal literaturaren bitxi atsegingarriak.

Eradu lez agertu nai dogun "Pasiñokoa" deritxonak irurogei estrofa daukaz guztiz, zortziko nagusitan, naizta azken puntuak bederatzikoen sunda erion. Onela banatuta dagoz:

"Jesu-Kristori kendu ezkerok
bekatuarekin bizitza,
baldin ezpadet negar egiten,
arrizkoa det bioitza:
guziok lagun,
kanta dezagun
bere penazko eriotza.

Mundua baiño lenagotikan
señalaturiko eguna
alderatu zan obratzekotzat
gizonaren osasuna;
argia bera
alde batera,
besterik egun illuna."

Au sarrera legez; eta Getsemani'ko ortuan, izerdi otza arpegian eta biotza atsekabez gaiñezka, Kristo egoanekoa, onan abesten dauku koplariak:

"Ostegun Santu afal ondoan
bere lagun zituela
Jesus'ek iru dizipuluak,
itz egin zien onela:
—"Triste nago, ta
lo ori bota,
egizute emen gaubela.

Getsemani'ko ortu santuan
auspaz lurrean jarririk,
eskatzen zion, libra zezala,
Aitari, kaliza artarik.
Jesus pemnatzen,
odolez usten,
eta ez det nik negarrik?"

Gurutz astuna sorbaldan, Jerusalem'dik gorantz doa Kristo. Maitasun bizi-beroz ainbat urtetan Nazaret'en zeindu ta poztu eban amak, Andra Mariak ez dau itxi albora. Olerkariak onela dakar gogora:

"Bide onetan zijoanean
Kalbarioko mendira,
bere Semea kontenplatzeko
Ama zegoan begira;
an dira penak,
an tormentuak,
martirioak an dira!

Bidaltzen ditu Amak begiak
Semearen ikustera;
baiñan biotzak, sufridu ezin-ta,
biurtzen ditu atzera;
datoz argatik
begietatik
biotzak itz egitera."

Literaturan gora aundikotzat jotzen zan garai aretan alkar-izketa, eta A. Basterretxea'k emen Ama ta Semea ipinten daukuz aurrez-aurre autu samintsuan. Amak negar egiten, Semea alan ikusirik. Semeak jardetsi: "Ba-dakizu, Ama maite, / asko sentitzen ba'dezu ere / onela ni ikustea, / bestela ezin / zeruarekin / egingo dala bakea". Kristok Aitaren naia egin bear dau, ta Amari eskatzen dautso ortarako baimena. Eta aurrera mendi-gaiñeraiño. An ditugu, azkenik, Semea abean beso-zabalik, eta Ama gurutz-oiñean, zutik.

Olerkariak ba-daki zelan biztu-azo errukia irakurle edo entzulearen biotz-barnean.

AITA ONAINDIA



LAU URTEKO NEURE IBILLERAK (XV)

Miranda'n sortzen ziran Batallon de Trabajadores izeneko gizon langille aldrak. Ta orretarako lantzean-lantzean asten ziran izen zerrendak deitzen. Zerura joateko geienok garbitokitik igaro bearra izango dogun lez, aske etxera urten aurretik "trabajadorietatik" igaro bear genduan ba-genkian eta orregaitik geu be era orretan andik urteteko amorratzen gengoan.

Bein, arotz, igeltzero, burdiñ lanean ekienak eta olako langilleak euren izenak emoteko deitu eben. Gure langintzak edo zeregiñak ez eukan baliorik orduko. Baiña Rafael lengusua errementari ikasten asitakoa zan eta bere langintzan aurreratu eitean aretariko aldran joatea obe zala erabagi eben anaia bien artean. Ta emon eban izena.

Baiña alperrik izan eban anaiarengandik bereiztea. Guk andik egun batzutura urten genduan, bera an geratu zan. Ta geroago eroan ebenean ez eban izan bere langintzan lan egiterik, pikotx eta paleagaz baiño. Ta ez gu lez etxetik urtean; Algezirak aldera eroan zituen.

Askatasuna be guri baiño nekezago eldu jakon. Gu orduko aske gengozala, egun batzutarako baimenagaz etxera, Donosti'ra, eldu zan ego alde aretatik. Ta sendiagaz atsegiñez egoala gaixotasuna eldu jakon bat-batera: paludismo gatxak eraso eutsan. Ez dakit an urrunean lenago olako ezer izan eban ala ez. Baiña edozelan be an artutako gatxa zan.

Bere semea gaixo ikusi ebanean, militar sendagille bateri deitu eutsan ixiko Prantziska'k. Sendagille a arrituta geratu ei zan "trabajadoreetako" bat gudari bailitzan egun batzutarako baimenagaz aske edo zaindari barik etxera etorri zala ikusita. Egia zanik sinistu be ezin egin ei eban. Iges eginda egoala uste ei eban. Alderdi onetan gudari bat alboan ez bageunkan ez geunkan ibilerik eta. Olan bada, etxean ez egoan ezer egiterik, gudari osatetxera eroan bear zan bereala. Ta Oyartzun'gora eroan eben eta antxe egon zan osatu arte. Antxe ikusi neban neuk be.

Gero, andik urten ebanean alderdi onetako batalloian sartu eben. Ez eban izan dana txarto gaixo geratzea.

Ta eldu deiotan len eten dodan ariari.

Miranda'n aste bi edo iru geroazala geu be sartu ginduezan an sortzen ziran aretako batalloi baten. Onetan zori on apurra izan genduan. Euskal Erri'ra bialdu ginduezan, Baztan'go Arizkun'era.

Miranda'n Arizkun'era gentozanok barraka berezi baten sartu ginduezan, eta neurri bako jantziak emon eta biderako janarizat sardiña lata andi bat bost lagunentzat; eta biaramonean merkantzia gurdietan sartu ta ateak itxi-

rik, Donostia aldera eroan ginduezan bultziz. Sardiña latea emoteko izen zerrendan alkarren ondoan ziran bost lagun izaten ziran. Nigaz gertau ziran laurak ezagutu be ez nituan egiten; eta sardiña batzuk gora —bera naiago neban nire lengusuakaz joan. Ta nire tokamena eurentzat lagaten nebala ta neure lagunakana niñoiala esanaz, alde egin neutsen.

Obe neban besteakaz be sardiñai ikuturik egin ez baneutse!

Geltokietan naikoa atzera-aurrera eginda eguerdi aldean Donostia'ra eldu giñan. Orduko iragi euskuezan ateak eta Donostia'ko geltokian atzera-aurrera genbiltzala, Gros'en bultzi bidera alderdia eukun etxetakoak konturatu ziran zeintzuk giñan bultzian giñoiazanak eta ogia edo zerbait emoten alegindu ziran.

Irun'eraño joan giñan bultzi aretan. Orduko janda gengoan sardiñazko gure jakia. Sekula ez daust txartogo egin janak. Sabeleko miñez okertuta nengoan. Ta Paseo de ColoN'go etxe errean ora zarretan sartu ta galtzak erantzi bearra izan neban. Baiña sabelekoa ez zan min guztia; au arintzean agiñeko miña neukan. Geroago bere galtzak askatu bearra izan neban. Bidasoa'ko bultzian eroan bear ginduezan Elizondo'ra ta bultzi au artzeko (gutzat bereziki jarritakoa kontixu) Gal ostiko zelai ingurura eroan ginduezan. Ta an bultzian sartzeko gengozala, sabeleko miñari ezin eutsita, nire maletari begiratu eiala mesedez esan neutsan arpegiz ezagutzen neban mutrikuar bateri. Baiña bildur apur bategaz joan nintzan ango sasi artera galtzak eraztera, toki aretan jendeagandik alde egitea beste aldera iges egin naian ete nenbillen susmoa gure zaintzaille ziran gudarietako bateren batek egin eikeala-ta.

Gero sabeletik apur bat konpondu nintzanean agiñeko miña barrero. Neure bizi guztian alako egunik ez dot igaro.

Illunduta eldu giñan Elizondo'ra. Andik Arizkun'era joan bear giñan. Ez dakit zenbat bide dagoan, baiña oiñez eta modu aretan, luze egin jakun. Bost kilometro inguru egongo dira. Ta euria egiten eban, ez lodi baiña atertu barik bide guztian. Geuri be kostau jakun geure maletak eroatea, baiña zer eroan geiago eukenai geiago. Errezago eroan al izateko makilla edo adar batetik maletak izegi ta makillearen mustur bakotxa lepoan artuta lagun biren artean eroaten be ikusi nituan. Bateri baiño geiagori atertu bako euri arek euren maleta merkeak ondatu eutsezan eta kirten utsak eskuan geratu jakezan.

Arizkun'era eldu giñanean ordu aretan ez egoan gu nun sartu ta pelota lekuan geratu giñan. Eskumako alde

iragia eukan, baiña beste guztiak itxiak, goia be bai. Beraz, an ez geunkan euri bildurrik. Ta denporeagaz jendea lurrean jarri zan, al zan eran lo egiteko. Nire lagunak be bai. Kostauta, baiña luzatzeko aiña toki egin eben eta gau guztian lo egin eben. Nik ez; ni ez nintzan etzin. Nik igaro neban eguna igarota ezetarako gogo barik nengoan eta maletearen aurka lepoa (bizkarra) ipiñi ta jarrita (exerita) gau guztia egin neban! A zan gabaren luzea! Naiago neban orduan adimen bako gizajoa izan banintz. Gure orduko ibillerak eta igaro nituan miñak ilda laga eben nire biotza.

Eguna egin zanean asi ziran joan bear giñan tokietara eroaten. Aldra bateri deitu ta eroaten zituen nunbaitera. Geroago besteak eta olan jarraitu eben. Nekez egiten eben zeregiñ a. Gu azken atara ginduezan pelota tokitik. Arratsaldeko ordu biak ba-ziran gitxienez. Bost lagundi edo konpañitan banatu ginduezan. Lagundi bat Azpilikueta'ra eroan eben, baiña besteok Arizku'en geratu giñan. Gure lagundia, erri barrutik geienez bost miñutuko bidea egoan tokira eroan ginduezan. Etxe edo danadalako bitan banatu ginduezan. Geienak, baserria baizen andia zan ardi txabola edo mendiko gauzen gorde leku izango zan baten; antxe ipiñi eben sukaldea ta gudariak be bertan gelditu ziran. Ta an danok sartu ezin giñalako, andik berrogetamar neurkiñ ingurura egoan ardi txabola txikiago baten irurogei lagun inguru. Geu be bai.

Gure txabolea zati bitan banatzen zan. Sarrera txikiagoa ta ate bat aiñako uts edo ueko batetik igarota, andi-agoa. Ate zulo arek bean koskea eukan. An ez egoan ezer jakirik gutzat eta ia egun bian aurre eguneko iru edo lau sardiña izan ezik jan barik egoan jendeari zerbait emon bear eta errezena egin eben: Fideoa. Ta emoten asi ziran. Ta artuta neure barruko tokira niñojala, aztu jatan an egoan koskea ta estropozua eginda ipurdiz gora jausi nintzan plater ta guzti. Soiñean neroan jantzia, trinxerea be dana loitu neban.

Agur nire bazkaria! Ia egun bi ezer berorik barruan sartu barik eta orduan a jazo bear! Zelako gizajo itxurea ete neukan nik orduan? Ni ixillik nengoan baiña nire orde, ezagutzen ez ninduan jende arek berba egin eban eta barriro emon eusten fideoa ta jan neban. Illuntzean bere oraindik ez egoan ezer ta axe emon euskuen barriro be: platera bete fideo ta ezer be ez besterik. Ogirik be ez.

Biamonean asi giñan lanean. Errazu'tik aurreratxoagoko mendia zan gure lan tokia. Ez naz gomutaten edo ez neban jakin zer lan egiten zan an. Baiña Prantzia ta España arteko mugea egoan andik urrean eta ziur toki areik gudarako gertutea izango zan, gero Gaintxurizketa'n egin genduazan lez ametralladoren abiak eta abar egiñaz.

An egon giñan denporan, illabete inguruan, lau egunean bakarrik lanera eroan ginduezan. Katean jarri ta

eskurik-esku arriak erabiltea izan zan gure lana; ez ziran arri andiak.

Cardeña'tik aldatu ezker, egun batzutan, etxetik bialtzen euskuen jatekorik artu barik gengoan eta an emoten eben apurragaitik goserik ezin kendu. Batetik gosea ta otza, negua zan da, bestetik atxillotuen bizimodu a gudarien begiratzepean lan egin eta zikiñez josita, ardi txabola baten lur gaiñean lo egiñaz, ez nengoan allimoso.

Ta illen nengoala, poz andia izan neban. Bat be uste barik erritar adiskide bategaz tope egin neban, Olea'tar Andoni'gaz. Prantzia'ra itxasontzi baten joan giñan eta Bilbo'ra urrengo Epaillean biurtu zan arte alkarregaz ibiltan giñan. Orduan egindako laguna neban. Berak irakatsi euskuzan prantzes ikasi genduzan lenengo berbak. Ta an Errazu'ko mendian bat-batean alkar ikusi genduean besarkada estu-estu bategaz alkar agurtu genduan.

Bilbo galdu ezker alan ei ebillen urte bi ta geiagoan. Orduan kartero egoala esan eustan. Esan genduzan kontuen artean Prantzia aitatu barik ezin egon; eta antxe geure gaiñean egozan mendietan egoala mugea esan eustan. Baiña edozelan ez begiratzeko mendi aretara, iges egiteren bat gertuten geniarduala iñok susmau ez eian.

Tartean-tartean, iges egiten ei eben Prantzia aldera atxillotu edo batalloiko langilleak. Egitada onek amorru andia emoten ei eutsen ango arduradun gudari nagusiai. Baten, mutil batzuk iges egin ebenean an geratu zan euren lagunari gorriak igaro eragin ei eutsezan. Iges egindakoak bere lagunak zirala ta arein asmoen barri jakiñean egongo zala ta izegi (colgar) ta emonalak emon ei eutsezan. Gizajo beraren aotik entzun ei zituan kontu oneik Olea'k ta entzuten negarrak urten eutsala esan eustan.

Gero, gure lagunditik be bein baiño geiagotan iges egin eben.

Iges egite au zer edo zelan amaitu nai ta izen zerrendan alkarren jarraian giñan bosteko taldeak alkarren arduradun edo erresponsable jarri ginduezan. Bear bada alkar ezagutu be ez genduan egiten. Ta baten, batzuk iges egin ebelako zelaira deitu euskuen eta iges egin ebenen ondoren izena euken bost artu ta Iruña'ra eroan zituen epaitzeko. Ez neban jakin zer zigor emoten eutseen.

Orain esan ditudan arduradunak edo errudunak aukuratze orretan gure erritar ta nire lagun Erremitteria'tar Eduardo be artu eben. Baiña an egoan gudari batek au ezaguna ebalako edo ez dakit zegaitik, atzera lerrora bialdu ta beste bateri deitu eutsan.

Arizkun'era joan eta egun batzutan arpegia garbitzeko aukerarik ez genduan izan. Ta eguzkia agertu zan baten geuk eskatuta, ibaira bialdu ginduezan. Neguaren sarreran gengoan baiña eguraldi ederra egoan eta paitak baiño atsegiñago ibilli giñan igarian.

Aurrerago aitatu dodan agiñeko min arek ez eustan

GUDALDIN

bakean lagaten; egunetik egunera andiagoa neukan, lotaraten nintzanean berotasunak edo, ez dakit zek ekarten eustan. Ta etzinda nengoan tokian jarri (jezarri, exeri) ta esku biak matraill azurrean edo buruan nituala inkezaka ez nintzan geratzen.

Txabolaren barruko alderdi arek geienez be amabost neurkiñeko laukoa egiten eban eta ogetamabost bat lagunek lo egiten genduan bertan; sardiñak latetan lez egoten giñan. Ta miñari ezin eutsita, len etzinda egon eta jezarten nintzanean, bereala itxi edo beteten zan atzean lagatako tokitxoa, arria uretara jaurtiten dogunean, ondura joatean, gaiñean lagaten daben tokia bereala itxiten dan lez. Estu-estu egoten giñan eta lo egozala nasaitasun apur bat egoan tokira gorputzak berez joaten ziran.

Gero, ordu bi edo irura miña arintzen jatanean etzin naian asten nintzan baiña ez neban tokirik eukiten eta an ibilten nintzan ixilka albokoai ziri ta bultzaka etziteko aiña toki egin naian.

Batalloiko osagillearengana eroan ninduan pratikanteak, gaixoakaz Iruña'ra joiazanean neu bere eurakaz batera agiña ataratera eroan nindeien, baiña aztu egin jaken eta ez nintzan joan. Andik laster asistente jarri nintzan eta gorputzeko garbitasunak egiteko aukerea banekuan eta agiñak garbitzen asi nintzanean joan egin jatan miña, edo asko arindu beintzat.

Orditik illa batzuetara Gantxurizketa'n gengozala, bakarrik bide-zabalean niñoiala gu lako langille bat agurtzera urreratu jatan. Ezagun lez agurtzen ninduan ari, ez nebala ezagutzen esan neutsan.

—Nik bai zu —erantzun eustan— Arizkun'en agiñeko miñagaz egoten ziñana.

Barre egin neutsan.

Arizkun'en agiñeko miña neukan aldi baten bufanda illunagaz estalduta eukiten neban arpegia, burutik zear lotuta. Lenago be esanda daukat; gure lagundiko sukaldea edo sua beste bordan egoan, eta gu ara jatekoa artzera joan orduko besteak lerroan jarrita egoten ziran eta gu atze aldean geratzen giñan.

Egun baten, besteetan lez gosaria artzera joan giñanean gure txabolakoak lerroaren atzean geratu giñan. Ez dakit lanera joateko giñan ala ez; beintzat oraindik illun egoan. Gosaria emoten asi ziran eta apurka-apurka ba-giñoiazan lapiko ondora urreratzen. Baiña itxurea zanez, akeita-esne gitxi jarri eben-edo, danontzat elduko ez zan bildurrez, gu atzekoak bigarrenez artzera giñoiazala esaten asi zan sarjentoa. Guk ezetz ta ezetz, artu barik gengozala. Olan eztabaidan genbiltzala eldu zan nire txandea ta bigarrenez ez niñoiala agertzeko, emon eusten gosaria jaurtitera siñua egin neban. Orduan an egoan kaboak zigorra jaso eban ni joteko ta jende artera iges egin neutsan. Ta edan neban, begia baiño naiago neban akeita-esnea.

Ta alako baten, kaboak arkitu ninduan eta ia gosariagaz zer egin neban itandu eustan. Edan egin nebala erantzun neutsan. Obe nebala, bai, edan neban, esan eustan berak.

Eskerrak edan neban, edo jaurti ez neban, bestelan garbituko ninduen!

Gosaria jaurtitea jarkitea zan areintzat, errebelatea. Itxurea zanez ni ezin billatuta ibilli zan eta burutik bera neukan bufandan ezagutu ninduan.

KAMINAZPI

ARPIDETZEKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... 'tar

..... kalean (auzoan) zenbakian

..... errian, errialdean (probintzian)

Arpidetzea ordaintzeko diru-etxera (bankura) bialdu ordain-

txartela, an daukadan zenbakidun diru-kontura.

EZKURRA, URDAI-AZPIKOA ETA GERNIKAKO ARBOLA

Udabariak sortu nau aritz-adartxo batean. Txikia naz oso; baiña, aundirako indarrak eta zuzenbideak neregan dodaz. Ez keixa: okerrik ez ba'da, elduko naz neure elburura.

* * *

Orlegia naz, muskerra, nere inguru osoaren antzera, eta borobiltzoa. Badot txapela be bere kirtentxoarekin eutsigarriko eta adarrari itsatsiteko.

Eguzkiak, euriak, aizeak, ama-lurrak laguntzen dauste aurrera bidean, aritza tartean dala.

* * *

Udaberriarekin osotu naz polit eta eder. Begiak idegitan, ene poza biotzean, aizpaz inguraturik ikusten dot neure burua. Zenbat geran! Adarrak bete-bete dagoz eta aizearekin batera kulunka egiten dogu eguzki epeletan.

Adar-artean, an goienetan, ortzi-zabaia ikusten dot urdin eta urrezko erraiñuak datoz tarteatatik beera eta lurrean margotzen ditue milla marrazki argitsu, geldi egon eziñez urduri...

* * *

Udabarria aurrera doa; zugaitzaren oiñetan, gauetik goizera, perretxikoak sortu dira urretxak urdin-more eta gibelurdiñak orlegi. Baita ziza oriak be.

Ez dabe bizi luzerik izan: aldameneko baserritik ume mukizu batzuek agertu dira eta jaso euren betere eldu ez diran perretxikoak.

—Zergaitik orren txikiak jaso dozuez?

—Bestela, beste batek jasoko dituelako.

—Baiña, obe izango litzake danentzako, alkar errespetatuz, aunditzen eta bere onera etortzen lagatzea perretxi-kueri bezala, beste izaki guztieri...

—Obe dot perretxiko txikia, bat be ez baiño.

—Eta, ori ondo al dago?

—Booo... Ori esanez, sorbalda jaso eta ba-doz etxera.

* * *

Or datoz maldan gora, arnas-estuka, gizon eta emakume gazteak. Aupa mutillak! Jantzi gorritz, urdiñez eta oriz, urrutira perretxikoak dirudie, alai datoz eta sasoi sendoa darakuzte.

Atseden artu dabe aritz-pean.

Eguerdi-eguerdia da eta eguzkiak berotzen dau itzalik ez danean. Aritzak bere itzal ozpilla eskeintzen dautse alai eta biotzetik. Etzanda dagoz gora-begira, izardi-tanta sendoak bekokietatik dariela. Ostoartetik igarotzen diran erraiñuek euren gorputzeetan jolasten dira, burutik gerrira eta gerritik oiñetara.

Berri txarrak entzun dodaz euren egoetatik: arizti au ebagitera doazela, alegie egur-ikatza egiteko eta enborretik

etxegintzarako zura aterateko. Protesta bizian ekin dau-tsoe alkarrekin. "Orlegiak" ei dira eta "Ortz-adarra" alkartea osatzen daben orreitarikoak. Indar gitxi dauke oneik gauz onerako. Borondete ona: "al ba'nuke, egingo nuke"... Moto-zerrak, ordea, orreik bai dabela indarra!

Baiña, emen gagoz gu, milliaka, aritz barriak sortzeko. Neure barruan dodaz sustrai, enbor, adar, osto eta ezkur barrien indar-kemenak. Guk sortuko dogu arizti barria...!

* * *

Uda bere aizkenerako bidean dago eta eguzkia aspal-ditik dago berantz asita. Lengo gibelurdiñak orain ondio-baltz biurtu dira. Zein usain gozo beetik gora. Gaur ez da iñortxo be onein billa etorri, bart euritsu izan dalako edo gaur astelena dalako. Unetik unera aunditzen doaz: txapel aundi galanta sortu dabe bakoitzak eta sutabe potoloa... Zer perretxiko ederrak!

Umeak eskolan asita dagoz goizetik eta emen ez da umerik agertu. Biar ikusi bearko.

* * *

Ikusi dot: agure zaarrak emen, pardeltxo bana eskue-tan, iru lagun. Onein poza eta zoriona ondioak ikusi dabe-zenean. Amar urta gaztetu dira. Izan be bederatzia ondio ziran alkarrekin banan-banakoak, oso-osoak eta eder-ederrak...

Onein poza nire tristurarekin batera dator: soiñekoak orizkatzen asi jat eta nire inguruko ostoak be bai...

* * *

Udazkena amaitzera doa. Zerua goibel eta mendebaleko aize zakarra euri-jasarein batera. Astindu dau geure adarra eta aidean bota gaitu eutsigarria etenda. Sail batek lurra jo dogu. Neure buru orlegia gaztain-kolore ikusita, Ituren'go kanta zaarra etorri zait burura:

Atzo ttunttun
gaur ttunttun
beti ttunttun
gaittun gu.
Gure diruak aittun eta
Nork naiko gaittun gu?
Atzo ttunttun
gaur ttunttun
beti ttunttun
gaittun gu.

* * *

Lurrak artu nau bere magalean epel eta aritzetik jausi-tako nere aitzak ikusi dodaz sakabanatuta. Erreten batean nago gorderik. Danon artean sortuko dogu arizti berria... Au poza!

KONTU-KONTARI

Baiña, zer da or datorren zerki ikaragarri ori!?

Bere atzazalak sartzen ditu loietan barruraino eta karterpillar baten muturra dau. Belarri aundiekin begiak estaltzen ditu goiko aritza ikusi ez dagian. Muturrean bi zulo bildurgarriak ekaitzaren aize-kiratsa botatzen dabena, ito bearrekoa.

Sartu dau musturra lurpean mendiak arrotzeraino. Mustur artetik likaz beteteko misto lodikote bat atera dau eta arekin sartu nau errotara. Arririk gabeko errotea. Arririk ez ba dozu, bai gain ikaragarriak, gora eta beera dabilzanak. Agoa zabaltzean batak gora egiten dau eta besteak beera, agin-illara osoak; agoa ixtean, ordea, biak alkartzen dira karraska mingarria lagun dabela. Birrintu nabe bi sailleen artean eta irunsi este-gorrian barrena, irakiten dagoen pertzaraino. Bertan naastu gaitue aizpa guztiak, zapero eta morokila gurekin egin ondoren, odol-erreka gorri batean zabaldu gaitue gorputzaren bideetan zear. Atze-aldeko laurenekoetara eroan nabe eta bertan urdaiazpiko biurtu.

* * *

Nere aldamenean egoan aizteak suerte ohea izan dau: lurrak arrotzean, azpian geratu da, lurpearen magalean gozo kokatuta, udaberriaren zain. Urteero izaten da udabarri barri bat. Bitartean edurrak eta euriak, aizeak eta eguzkiak lurra onduko dabe aritz barriari ongi-etorria emoteko. Arek beteko dau gure eginkizuna, bizia aurrera gertatu dedin; gu, berriz, emen gizonentzako janari gozo biurturik.

* * *

Gure mustro au-txerria deritza-or dabil ariztiko ezkurrez bere sabela beteten. Ondo miazten ditu baztarrak. Bai gizendu be sendoki koipez baiño geiago aragiz etta okelaz. Korrikalaria da eta ez kortan bizi osoa etzanda igaroten daben orreitarikoa.

Begiak dauz beti berantz, belarri aundiekin estalita, lurrera begira. Sekula ez dau, ez eta alditxo batean be, aritzarengana bere begi txikirik jaso. Lurrera begira, beti lurrera begira...

* * *

Sanmartiñik gabeko txarrik ez da oraindik sortu eta goietan edurrak agertzearekin batera, arrapatu dabe gure txarria mendian eta arategira eroan. Aizto zorrotzez odol-uztu dabe odolosteak egiteko. Atzeko laurenak, piparrez eta gatzetz, aize otzetan eskegi ditue eta, ara gu, ezkurrok,

negua zintzilik pasatzeko asmotan urdaiazpikoa umatu eta ondu arte.

* * *

Ama-lurraren magala galdu, negu osoa atzetan zintzilik eskegita pasatzeko, ez da gozo-gozoa izan. Alan be emendik jatsiteko eguna eldu da. Esku biguñez eta leunki artu gaitue begirun aundiz eta artillezko zorro zuri batean gorde. Tokiko marka ipiñi eta bialdu gaitue Urlia jaun euskaldunaren tabernara.

Emen be zintzilik. Aize otzik ez da; bai, ordea, zigarro-keiaren atsa. Barriro umatzeko ete da? Mendi garaiko aizea au baiño ohea, otzago izan arren. Aize garbia zergaitik zikintzen dau gizonak ezpañetan, kentzeke deroan zigarro narratx orrekin?

* * *

Zenbat itz, zenbat berba eta zenbat mintzo egiten daben gizonak gure urdaiazpikopean... Emendik begiratu-ta, naiko kaskarrak ikusten dodaz: txerria aundiago ikusten zan ariztian.

Gaur berbetako gogoa dakarte: futbol-zelaitik datoz. Atletik eta Real nastetan ditue. Zein geiago dan ala ez dan.. Real'ak sei gol sartu dautsozale Valencia'ri eta Atletik'ek ez dauala orrenbeste sekulan egin... Baietz eta ezetz: eztabaida gogorra sortu da.

* * *

Gol ori gauza interesgarriren bat dogu, aizez puztuta eta itz-jario etorri bait dira futbol-zelai orretatik. Zer ete da gola? Jainkoren bat ete da?

Guztiak ekin dautse urdaiazpikoari ortzak ezartzen mauka-mauka... Gauza gozoa gera, antza. Ez da inortxo be txarriarekin gogoratu, ezkurarekin gogoratu, aritzarekin gogoratu...

Txarriak ezkurra lurrari begira jan; gizonak urdaiazpikoa lurrari begira jan, gora begiratzeko... Txarri-kumak ete dira...? Ez dabe, ba, belarri ain luzerik, ez eta mustur ain zekarrik be...

Ebagi nabe. Irunsi nabe. Pertza txikiagoa: atsa aundiago, ardo-usaiña... Galdua naz...

ARRINDA'TAR ANES

P.D. Konsolagarri gertatu zitzaion bere aizpa bat Gerrika'n erne zala jakiteak, aritz eder bat sortuz, sekulan galduko ez dana.

SASI-LAGUNAK

Antzezleriak:

1. Edeslaria.
2. Basauntz Andrea.
3. Oilloa.
4. Azeria.
5. Usoa.
6. Astoa.
7. 8. 9. Eiztariak (Kazariak).

LENENGO ZATIA

Antzokian: edeslaria, oilloa, azeria, usoa eta astoa.

Edeslariak:

Basauntz Andrea,
basoan, bakean, pozik bizi zan,
bere ume maiteekin, etxe bero, gozoan...
Baiña eiztari gaiztoek zauritu dabe tiroka...
Emen dator gaixoa, zaurituta, odolduta,
arnas-estuka.
(Basauntza sartzen da zaurituta.)

Basauntzak Oilloari:

Oillotxor lumaduna,
aspaldiko nire laguna.
Eiztariak dodaz atzetik ni ilteko...
Zure oillategian mesedez nozu gordeko?

Oilloak Basauntzari:

Pozik zinduket gordeko,
bai pozik, lagun zar...
Baiña aurretik nire oillar Jaunari,
baimena eskatu bear.

* * *

Basauntzak Azeriari:

Azeri, azeritxo,
nire lagun aspaldiko,
zure zuloan nozu gordeko
eiztariengandik aldegiteko?

Azeriak Basauntzari:

Nire etxea pozik emongo neuskizu...
Baiña ostatua pagatzeko dirurik ba dozu?

* * *

Basauntzak Usoari:

Uso txo maite,
zu zara bake-zale,
emoidazuz zure egoak arin,
emendik dagidan aldegin.

Usoak Basauntzari:

Basauntz Andrea,
zergatik zabilta iges?
Bizi gura badozu bakez,
bake-zale izan zaitez.

Basauntzak Astoari:

Astotxo, lagun apala,
arerioak datozkit bereala.
Ba daukazu niretzat
gordeko tokiren bat?

Astoak Basauntzari:

Basauntz Andre Gaixoa,
gutziz zagoz odoldua.
Zatoz nigaz, bai, lenbailen.
Gordeko zaitut nonbaiten.

(Basauntza eta astoa ba doaz, eta eiztariak sartzen dira.)

1. eiztariak:

Non dago basauntz lapur ori!
Ez da iñon agiri?

2. eiztariak:

Onantz etorri da zaurituta.
Non ete dago gordeta?

3. eiztariak:

Basauntz madarikatua,
Non dago ezkutatua?

Oilloak:

Egia da, eiztari jaunak,
basauntzak dira basa-pizti gaiztoenak.

Azeriak:

Baita lapur gaizko kaltegarrienak.

Oilloak:

Zikiñenak.

Azeriak:

Maltzurrenak.

Usoak: (begiak zerurantz jasorik)

Zorionekoak bagedunak.

Alkar maite dabenak.

BIGARREN ZATIA

Antzokian Basauntz Andrea Erregin jantziekin.

Oilloa, Azeria, Usoa eta Astoa

Basauntz Erregiñari omen egiten.

Edeslariak:

Urteak joan, urteak etorri,
Basauntza da orain mendiko agintari.
Basoko abereak datoz apalki
opariak eskeintzen Erregin Barriari.

Oilloa (otzara bete arrautzekin):

Emen nator, mendiko Erregin,
otzara bete arrautzekin...

Artu nire biotza, opari onekin.

Basauntzak Oilloari (isekaz-ironiaz)

Ezin dot artu, lagun, zure opari ori...

Eskatu deutzazu baimenik, zure senar Jaunari,

oillar arroari?

ANTZERKIA

Azeria (belaunikaturik):

Basauntz Erregiña, bizi zaitetz betiko.
Emen naukazu zure aurrean belauniko...
Zure menpeko leiala nozu betiko.

Basauntzak Azeriari (asarre):

Azeri maltzur, beti guzur...
Gaur zenbat diru zeunke eskatuko
zure etxean ostatu emoteko?

* * *

Usoa (olio-abar batekin):

Artu egizu, Erregin haundi bakarra,
nire bakezko olio-abarra...
Auxe da bake ezaugarri ederra.

Basauntzak Usoari:

Zelakoa da zure bakea, uso laguna?
Kanposantuko lo aztuna?
Espetxeko ixiltasuna?
Zoaz nire ondotik, uso guzurti,
zure sasi-bake ta guzti!!!

* * *

Astoak Basauntzari:

Nik, basoko Erregin,
ez daukat nirekin,
opari ederrik zuri eskeintzekorik.
Emen naukazu esku utsik,
zure aurrean lotsaturik.

Basauntzak Astoari (aulkitik zutundurik):

Zorionak zuri, Asto leial kutuna!
Zu bakarrik zaitut egiazko laguna.
Zatoz nire ondora,
Nire jauregian biziko zara...

* * *

Edeslariak:

Egiazko lagunak,
estualdian dira ezagunak.

GOIKOETXEA INAKI

BARREGAIK

OTO, SEMEA ETA TXAKURRA

Otok semea dau Europa-iparaldean ordenadore eta beste orretariko tramankuluak ikasten; bai, ba, bein europar egin ezkeroz, Europa'rekin artuemanetan alkar ipiñi bear dogu eta Oto'ri beti gustatu jako olatuaren aparaparean joatea.

Semeak aitari Alemania'tik:

—Aita, bialdu egidazu zure txakur Lagun, emengo jakintsuek asmakizuna sortu dabe-ta, txakurrei izketan irakasteko. Zoragarri izango litzake Lagun berbetan ikustea eta zure izen ona eta fama zeruraino igoko litzake. Dirutxua bearko da orretarako; baiña, orrelako txakur maitagarriak orrenbeste merezi dauala usten dot.

Aitak bialdu eutsizan txakurra eta dirutxuak.

Pozik bialdu be. Orrelako gauzarik...!

Denboratxua pasa da eta semeak ez dautso txakurra-
ren barririk emoten. Kezkatzen esi jaku Oto eta aolkua
eskatu dautso Pototo'ri:

—Txakurrak berba egiten ikasi legike, Pototo?

—I zoratu egin az. Txakurra berbetan? Bai eta astoa
biboliña jotzen. Orrelako astakeririk...! Txakurraren min-
tzoa, zaunka dok; ortik aurrera ez egik ezer itxaron...

* * *

Aitak semeari:

—Bota onantz txakur ori eta aitzera emon zelan doan
zure ikasketak.

—Aita-erantzun dautso semeak telefonoz-berealaxe
bialduko dautzut zure txakur maitea. Ez dakizu ondo zela-
ko poza artu dauan barri ori eman dautso danean. Erant-
zun daust oso pozik dagoala etxera biurtzeko, orrelako
nagusi onarengana. Eta gero esan dau: A zer barreak
egingo doguzan andra Joxepari esaten dautsa-danean,
bera merkatura doan bakoitzeko wuiski botilla ondo astin-
tzen daua nagusiak.

Oto gibelegoakin dabil aspaldian eta sendagilleak
alkoolik ez probatzeko aginduta dauko. Semeari erantzun
dautso:

—Gauzak orrela badira, obe dozu txakurra saltzea...

TIZIO'REN EMAZTEA

Otok bere aspaldiko lagun Tizio topau dau Donosti'ko
kaleetan. Bere aldamenean andra bat darama: begi baka-
rra, errena, buru-soilla pelukearekin, agin barik...

—Emen neure emaztea-diño Tiziok.

—Nondik atera dok traste zaar au-diñotzo Otok ixi-
lka-: kristalezko begia, egurrezko anka, astuen agiñak,
basakatuen illeak...

—Itz egik altuago, gorra dok-eta.

MATEMATIKA-MAIXUA

Ototxok nota eskasak atera ditu matematiketan eta
barriri azterketak ditu; obeto prestatzeko irakaslearen-
gana joan da, mutillak berorrekin saio batzuk egin aal izate-
ko. Joandana semearen aita da: Oto jauna. Irakasle ori
ikastolatik zetorren, berekasa berbetan eta atzamarrakaz
kontaten:

—Bi eta iru sei dira, lau geiago amaika. Beraz, amaika
urte daroaz etxe onetan matematikak erakusten.

OTO EPAIKARIAREN AURREAN

Epaikariak Oto'ri:

—20.000 pezeta zor dozuz trafiko-poliziari xenperre-
nak esan dautsozuzalako.

—20.000...?

—Bai. Eta, epai-maiaren aurrean ezer geiago esateko-
rik ba al duzu?

—Ba...

—Esan, esan.

—Zuen multa-neurri oneikaz edozein asten da emen
xenperrenak esaten...!

ARRINDA'tar ANES

EUSKERA ABERASTU

Bereak eta bi entzun ditu.
 Bereak eta bost entzun ditu.
 Bereak eta asto baltzarenak entzun ditu. (Le han cantado las cuarenta.)
 Bereak artu ditu. (Ha recibido lo merecido.)
 Berean bere dago. (Está firme en lo suyo.)
 Beren beregi egin dau hori. (Lo ha hecho adrede, a propósito.)
 Berekoi. (Egoísta.)
 Berekeria. (Egoísmo.)
 Berez il zan. (Murió de muerte natural.)
 Berezko argia. (Luz natural.)
 Antzezko argia. (Luz artificial.)
 ... bera. (Propenso a ...)
 Egarbera. (Sediento, propenso a la sed.)
 Gosebera. (Hambriento, propenso al hambre.)
 Ozbera. (Friolero.)

Kilibera, gilbera. (Coquilloso.)
 Eguzki bete-betea. (A pleno sol.)
 Bete betean sinistu dau. (Lo ha creído a pies juntillas.)
 Lo bete betean egon zan. (Dormía a pierna suelta.)
 Ori ala dala bete betean dago. (Está convencido de que...)
 Ordu bat, egun bat, ille bat, urte bat igaro da. (Ez da ondo esana.)
 Ordu bete, egun bete, ille bete, urte bete igaro da... (Ondo esana.)
 Otzara bat ogi, katillu bat esne, baso bat ardo... (Ez da ondo esana.)
 Otzara bete ogi, katillu bete esne, baso bete ardo... (Ondo esana.)
 Amabi urte kunplitu ditu. (Ez da ondo esana.)
 Amabi urte bete edo egin ditu. (Ondo esana.)
 Emakume ori buru-betea da. (Es una presumida.)

INAKI GOIKOETXEA



Dante Alighieri

Gure Elerti-munduan elerti orokorraren lanik ederrenak irakurteko erea izan daiten, osperik geien izan daben idaz-lanak euskeratzen lan aundia egiten dau Onaitia'tar Santi Aitak. Onein artean sartu bear ta Dante'ren "Divina Comedia" euskeraz Jainko-Antzerkia, oraintsu agitaratua.



Garratz eta Gordin

Sarritan goratu dogu ZER onetan Augustin Zubikarai'ren lan nekatu-eziña. Ona emen amasei urteko epearen barruan berak idatziz dauan 20n. liburua, GARRATZ ETA GORDIN elebarria.

ZER'EN SENDIKOAI OARRA

"Zer" gure aldizkariaren 96n. zenbakia dogu oraingo au. Laster eungarren zenbakira eltzen gara ba, eta zenbaki biribil ori bide dala ospakizun bat egitea gura genduke.

Orretarako ekintza bi artzen doguz. Lenengo, 100n. zenbaki ori berezi lez argitaratu, orri geiagoga eta idaz-lanak ugariago dauzala. Orri orreitan agertuko dogu baita orain-arte zenbat idazlek idatzi daben aldizkari onetan, euren izenak eta lanen kopurua agertuz.

Zenbaki berezi orretarako lanak gertatzeko deia egiten dautsegu bizkaieraz idazten daben idazle guztiai eta gure eskerrik beroena aurretiaz agertzen dautsegu.

Zenbaki ori agertzen dan inguruan, uda-aldian, batzar bat egingo dogu bazkari ta guzti eta batzar-

bazkari orretara deituta geratzen dira gure idazle guztiak. Lenago be egin genduan olako batzar bat eta bakoitxak bere bazkaria ordainduta izan zan, baiña oraingo onetan EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k ordainduko dau bazkari ori, esker onaren ezaugarri lez.

Batzarrean, bazkal-aurrean, gure jokabidea ta gure lanak aztertuko doguz eta jokabide barriak artu. Guztioi entzuteko gogoz eta pozetan gagoz.

Sasoiz agertuko da batzarrera deia. Bitartean zuek idatzi zenbaki berezi orretarako lana, orrialde bi edo laukoa izan daitela al dala.

Gure agurrik beroena guztioi.

EUSKERAZALEAK
 "ZER'EN ZUZENDARITZA"


Gure alegiña Bizkaiarentzat da.

Gaur, beti lez, gure erriaren billaketa-lanari laguntzeko gagoz.

Gaur, aurrera joteko sasoian, itxaropena oztopoen gaiñetik jarrita,
otseintza ta laguntzarako gure gogorik onena,
barriro ta geiagotuz sortzen da.

Gaur, eta egunero, Bizkaiaren izena omentsu eta,
batez be, emoneko berba lez daroan
Aurrezki Kutxaren lana, indarra ta amesak, ez dabe utsik egingo.

Berari erantzuten jarraituko dogu.



TXURRUKA'ri oroitarria Areetan.
Itxasoaren oldarra gelditzen,
gizonaren neurribako
alegiña:

BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA

Bizkaiko Foru Diputazioak sortu eta bultzatutako Erakundea.